

ADARRA

Pedagogi Erakundea



ESKOLARA EZ AGERTZEA GAINDITZEAREN INGURUKO JARDUNALDIETAKO ONDORIOAK

Eskolara ez agertzea eskola populazio orokorraren portzentaia txiki bati eragiten dion arazo konplexu bat da, nahiz eta derrigorrezko hezkuntzako azken urteetan portzentaia hau handiagotu egiten den eta ijito ikasleen zati esanguratsu batengan eragiten duen. Arazo honek kezka izugarria sortzen dio gure kolektiboari, egoera hurbiletik bizi duen irakasleei, eragindako familiei eta gure gizarteko sektore askori, eragindako ikasleri eskolaratzearen oinarritzko eskubidea kendu eta nahitaez gizarte bazterketara baitaroa.

Eskola arrakastak bertara agertzea hobetzen du.



Eskola porrotak eskolara ez agertzea bultzatzen du.

- Eskolara ez agertzearen arazoaren aurrean beharrezkoa da berau familien erantzukizunik eza eta ikasleen interes eta motibazio gabeziari dagokionaren ideia gainditzea. Askotan, irakasleok pentsatzen dugu: “ez baldin badatoz ezin dute ikasi”. Baina ikasketetan ez aurreratzeak eragiten du, bestak beste, eskolara ez agertzea.

- Bestalde, eskolatzea ezin daiteke legeek ezarritakoaren arabera eskubide edo betebeharrak soilik sinplifikatu. Begi-bistakoa da pertsona guztiak hezkuntzarako daukaten eskubidea, hala nola eskubide hau errealitate bat izan dadin beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarri behar direla, baina hori lortzeko **tresna ezin da hertsadura izan, elkarrizketa baino, akorduetara heltzea, guztion artean zentzua bilatzea, parte hartze eta ikasketa prozesurako oztopen ezabapena**. Eskolara agertzera derrigortzeak ez du ezer ere konpontzen aldi berean gorpil hori hautsiko duten aldaketak egiten ez badira, eta hau gure lan eta erantzukizunaren zati bat da. Hertsatze bideen erabilera hutsak arazoa handiago egin dezake, familia eta eskolaren arteko distantzia handituz joango baitira.
- **Arrakasta ereduak eskaintzea** beharrezkoa da. Ijito familiek, adibidez, ikusi dute dagoeneko eskolan ikasketa prozesuak ematen direla, baina eskola arrakastari dagokionean ez daukate esperientziarik, edo hau oso urria da. Arrakasta eredu gabezi honek itxaropen maila baxua sorrarazten du, hala nola kalitatezko irakaskuntza zer ote denaren inguruan erreferentzi falta. Guzti honek, familiek zentzu honetan ez eskolari ezta beren seme-alabei ere eskaririk ezin izatea dakar.
- **Bai familien bai irakasleen itxaropenak aldatzea beharrezkoa da**. Eskolara agertzen ez den ikaslearen inguruan sortzen den itxaropen maila baxuak "profezia autokonplizaitzailea" motako eragin kaltegarria dauka. Beste batzuen artean, eskola askok famili eta ikasleenganako daukaten itxaropen maila baxu hauek, **eskaintzen diren ikasketen kalitateagan daukate eragina**, gutxiengo batzuetan oinarritutako curriculum bat eskaintzara joko baita, honek motibaziorik eza, eskola porrota eta jokabide arazoak areagotuz.
- Beharrezkoa da, era berean, **ikasleriak berak bere buruagan dauzkan itxaropenak aldatzea**. Haurrak beren eskola porrotaz ohartuz doaz, honek eskolara agertzeko motibazioan eragin kaltegarria izanik. Beronek, era berean, ikasketa arazo handiagoa bihurtuko du, eta horrela etengabe.

Lehen Hezkuntzan eskolara agertze erregularra eskola porrotari (helburuen gainditze ezari) loturik datorrenean, honek Bigarren Hezkuntzan eskolara ez agertzea eta eskola-gabetzea ekarriko ditu.

- Eskola arrakasta lortzeaz gain, edo arrakasta lortu ahal izateko, ijito eta beste kulturen ikasleak, beste ikasleri osoak bezala, **bere burua aintzat hartua dela ikusteko beharra dauka, bere kultura eta nortasuna onartuak direla ikusteko beharra**, ez dezala alde batetik bere kultura eta familia eta bestetik eskolaren artean aukeratu beharraren sentipena eduki, honek eskolaren zentzurik eza areagotzen baitu.



- Bestalde, eskolara agertzean erregularitasuna eman dadin, **familiak gaurko gizartean beren seme alaben etorkizunerako hezkuntza akademikoak daukan garrantziaz ohart eraztea** ere beharrezkoa da, eskolak ekar diezaikeenaz ohart eraztea, eta eskolari dagokionez, ijito kulturaren onarpenera alde batetik eta elkarlanerako erlazio positiboa bestetik, bultzatzea. **Lehenbizikoa familia da**, beraz, eskolaren inguruko ezagupen ezaren edo honekin gerta litezkeen topaketa ezen aurrean familiako edozein beharrezani egingo zaio kasu lehenik eta behin, baita honek seme edo alaba egun horretan klasera ez joatea badakar ere.

Gero eta famili gehiago daude hezkuntza akademikoaren beharrianaren jakitun. Familiek beren seme alabentzako onena nahi dute beti eta berau lortzeaz arduratzen dira. Eskolara etortzen ez diren ikasleen familiek ere. Eta zeraren ziur gaude: bakarrik famili eta eskola zentroaren arteko elkarrizketaren bidez, famili hauekin lanean ari diren hezitzaile eta zerbitzuekin elkarlanean, aurkituko dugula beren seme alabentzako eskola zentroa aukerarik onena izateko bidea, famili eta eskolak helburu eta zentzu berbera elkar bana dezagun.

Hori dela eta, ezarri beharreko helburuak ondorengo hauek direlakoan gaude:

1. Eskolatzeak famili eta ikasleentzako zentzua izan dezala lortzea (betebehar soil bat izateaz haratago). Horretarako beharrezkoa izango da bai hezkuntzaren garrantzia eta bai eskolak beren beharriaz erantzuten diela frogatzea.
2. Ikasleriak bere ikasketetan arrakasta izan dezala, aipatutako ikasketok kalitatezkoak izanik, hala nola eskolan gustura senti dadila.
3. Irakasle eta familien artean komunikaziorako harreman ona izatea, hala nola akordio, komuneko helburuak... sortaraziko dituen bata bestearengano konfiantza.

Helburu hauen inguruan eztabaidatu eta gutxieneko akordioetara heldu beharra daukagu. Eta ez bakarrik bakoitzak izan litzakeen ikuspuntuen arteko ezberdintasunei buruz -zeinak hor egongo diren eta guztiok behar ditugun ezagutu, nahiz eta ados egon ez-, baizik eta **eskolara ikastera joaten denaren oinarri orokorrari buruz**. Eta bakarrik ikasleri, famili eta irakasleak

ikasketetan aurrerakuntzak ikusten ditugun neurrian isuriko dugu gure izerdia eskolara agertzea hobetzeko.

Helburu hauek lortzeko oinarrizko tresna **elkarrizketa** da. Elkarrizketa honen bidez lortu behar da famili eta ikasleak eskolara agertzeko lanean aktiboki aritu daitezela. Elkarrizketa honek ez datza familiei uneoro zer egin behar duten esatean, baizik eta eskolara agertze hau bideratu eta erraztuko duten baldintzak ezartzeko ados jarri eta konpromisoak hartzean, bai familiak eta bai eskola ere. Honek, hezkuntza zentroetako ateak zabaldu eta famili, auzokide, ikasle ohi, elkarte, gizarte hezitzaile eta abarren parte hartze eta elkarlanerako guneak sortzea barne hartzen du, parte hartzaile guztiek beren ahotsa entzun arazteko aukera berdina izango dituzten guneak sortzea. Era berean, elkarrizketa hau, zentzu bilaketa hau, erraz lezaketen erakundeekin elkarlanean aritzea ere barne hartzen du.



- Familia eta ikaslearekin **harreman onak ezartzeko** batzuetan beharrezkoa izango da kasuaren arabera batzuk edo beste izango diren laguntzak erabiltzea, hala nola eredu, erreferentzia, lagungarri izango diren beste familia batzuk, gizarte eta hezkuntza zerbitzuak, erakundeak, elkarteak... Badaude **beste zerbitzu batzuekin elkarlanean** aztertu beharreko egoerak,

eskolara agertze erregularra oztopatzen duten famili edota antolaketa arazoak, esate baterako.

- Familia batekin hainbat eragile esku hartzen ari direnean, eragile guztiak, familia eta ikasleriaren artean koordinazio eraginkorra ezartzea beharrezkoa da, eragile bakoitzak berea eskaini ahal izango duen eta guztiok ados egongo garen helburu konkretuak ezarriz, hala nola akordioen jarraipen eta berrikuspeneko momentuak ezarriz.

Eskola bizi eta amesteko era berri bat posible da, guztiontzako kalitatezko arreta izango duena.

Eskola aldaketa bultzatzeko honako irizpideok erraztu behar ditugu:

- A. **Ikasketa begi-bistako bihurtzea, eskolara ikastera joaten dela eta bertan ikasi egiten dela begi-bistako egitea.** Horretarako, **kurrikularen aberasketarako planteamendu bat** beharrezkoa izango da, beronen konpentsazio soilaren orde: baliiodun ikasketak barne hartuko dituen; ikasketa instrumentalak indartuko dituen, hauek eskuzkoengatik ordezkatu beharreak, itxuraz "erakargarriagoak" baina gaurko gizartean aski ez direnak.
- B. **Ikasleri osoa denbora guztian ikasten aritu dadila.** Horretarako metodología eta antolakuntza arloan aldaketak ematea beharrezkoa da, ikasleria guztiaren lana ahalbidetu eta eskolara agertzen ez diren ikasleen berriz eskolaratzea errazteko. Ikasleari klaseko ikasketekin loturiko interakzioetan ahalik eta gehien parte har dezala eragingo dion metodología bat beharrezkoa da, elkartasun giro batean murgildurik lanean arrakasta eragingo diona. Ekintza bakar batean maila eta interes ezberdinekin lan egitea ahalbidetuko duen metodología bat eta ikasleak behar duen laguntza klasean bertan jasoko duela erraztuko duena. Metodología mota honen adibide bat

Ikasketa Komunitateetan aurrera eramaten ari diren **"talde interaktiboak"** dira.

- C. **Eskola eta curriculumean kultura guztiak gogora ekartzea**, edo eskolan ageri direnak behinik behin, famili eta ikasleek baliotzatzen dutena kontuan izanik, beraiekin elkarriketan.
- D. Curriculumari dagozkion gaietan, ikasleen beharrezkoen azterketan, gaurko gizarteak aurkezten dituen erronketan, arazoei nola egingo zaien aurre..., guzti horietan **eragile guztien parte hartzea eta heziketa indartzea**, ez bakarrik irakasleriarena. Horretarako beharrezkoa izan liteke egitura berriak sortzea, formalak alde batetik, "lan batzorde misto"en eran, non irakasleek ez ezik ahaide, beste profesional batzuek, osaturiko batzordeetan lehentasunezko gaiak jorratzen baitziren; eta informalak, bestetik, hala nola "kafe ordua", ahaideen heziketa beraien eskakizunetatik hasita, edo jadanik badiren egiturak beste eragile batzuei zabaltzea: batzorde pedagogikoa, bizikidetasunezkoa, ahaideei zuzendutako informatika gela,...



laguntasun eta jarraipena landuz edo horretan lagunduz, heziketa lanaren alde ari diren eragile, hezitzaile eta elkarrekin.

E. **Helburuak elkarbanatzea.** Bai ikasleri, famili zein irakasleen ikuspuntu, bizimodu eta itxaropen aniztasunak, guztion artean elkar banatutako helburuak lortzera derrigortzen gaitu. Hau da eskolak zentzua izan eta ahaleginak norabide bakarrean joan daitezkeen modua. Helburuak elkarbanatzearen lan honetan baliagarriak izan daitezke ahaideen heziketa beraiek eskatutako gaietan hala nola "tertulia" erako topaketetarako gune berriak sortzea. Edota Ikasketa Komunitateetan aurkezten duten eta guztion helburuen lortzea errazten duen "nahi dugun eskola amestea" bezalako ekintzak.

F. **Itxaropen altuak indartzea.** Hauek, badakigun bezala, ikasketa, parte hartze eta bizikidetasunerako oinarrizko elementuak dira. Ikasle batzuei buruz dauzkagun ideiak aldatu eta bai beraien bai orokorrean familien ikasketarako gaitasunengan gehiago fidatu ahal izateko, beharrezkoa da **gure ikasketa planteamenduak berraztertzea**, zentzu honetan informazioa emango diguten teoria eta esperientzietan sakontzea. Ikasleriarekin erlazionatzen diren beste eragileei entzuteak, hau da, ahaideak, praktiketako pertsonak, elkarrekin, aisialdian lanean ari direnak,... eta gugandik (irakasleria) ezberdinak direnak, pertsona bereberiei buruzko beste ikuspuntu batzuk eskainiko dizkigute, beren gustu, interes, gaitasun, ardurei,... buruz. Beste leku batzuetan familien parte hartzea lortu izan duten **deialdiak egiteko moduak eta familia beraien parte hartzerako gune ezberdinak sortzeak** arazoa interes falta ez zela ikus araziko digu.

G. **Jarraitu beharreko bidea zein den ikusten adoretu eta lagunduko diguten ereduak edukitzea.** Eskola orduak zabalgotuz (eskolaz kanpoko laguntza), ikasleri eta familiekin hitz eginez, eskolarako

H. Hezkuntza, gizarte eta abarreko esparruen Administrazio, instituzio eta eragileok eskolatzearen derrigorrezkotasuna bideratu behar dugu. Baita ere lortu behar dugu derrigortasun honek eskola arrakasta bultzatzea eta zentruen hobetzerako proiektuen arabera behar diren baliabideak eskaintzea.



ADARRA



adarra@arrakis.es

Bilbo, 2004eko azaroaren 23 eta 24